

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lezama



Aurkibidea

Udalerria: Lezama

Sarrera



Txorierriko haranean dago. Herri hauek ditu mugakide: iparraldean, Gamiz-Fika; hegoaldean, Galdakao; ekialdean, Larrabetzu; eta, mendebaldean, Zamudio. Inguruan hainbat industrigune izateak biztanle gehienek industria sektorean lan egitea erraztu du, baina nekazaritza eta abeltzaintza sektoreak oraindik indar handia du eta Lezamako hainbat herritarrek jarduera horietan lan egiten du egunean ordu batzuetan baino ez bada ere. Iturria: www.lezama.org

- **Biztanleak:** 2.352
- **Euskaldunak:** %65,48

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **11**
- Zintak: **13**
- Pasarteak: **39**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **39**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- IRALE
- IRALEren Bizkaiera Bilduma
- Tximintx euskara elkarte

Hizlariak

Bittor Argintxona (1906)

Lezamako Aretzalde auzokoa da. Igeltseroa eta nekazaria izan da ofizioz, eta korrika eta kirolzalea afizioz. Gerra garaian, abertzaleekin gudari joan zen eta preso eduki zuten.

Maria Artetxe (1927)

Juan Batiz

Juana Bilbao Bolunburu (1933)



Betidanik Lezaman bizi izan da eta bere gurasoak be Lezamakoak ziren. Aitite eta amama aitaren partez Fikakoak, eta amaren partez Lezamakoak. Txikitatik Bilboko plazan barazkiak saldu egin ditu eta behar honetan jarraitzen du. Bere lehengusina derioztarrak ere parte hartzen du tarteka.

Primi Ereño (1915)

Pantxike Iruretagoiena (1898)

Lezaman jaioa. 1922tik aurrera Galdakaon bizi izan zen.

Andres Lejarraga (1917)

"Txikitone" etxekoa.

Fulgentzio Olabarrieta

Lezamako Goitioltza auzokoa. Igeltseroa. 72 urte zituen elkarrizketa egin zitzaionean.

Maria Olaeta Legarreta (1926)



1926ko Madalen egunean jaio zen Fruizko Botiola auzoko Jauregi "Jeuri" baserrian, baina urtebete zuela Lezamako Goitioltza auzoko Etxatxura joan zen familia. Aita Arrietakoa zuen eta ama Fruizkoa. 7 neba-arrebatatik bigarrena da. 7 urteaz 12 urtera arte Lezamako bere auzoko eskolan hasi zen, baina tartean gerrak irten zuenez ez zen askorik joan. 26 urteaz Larrabetzuko Gaztelu auzoko Mendieta baserrira ezkondu eta bertan bizi izan da ordudanik. 2009ko Bizkaiko briska txapelduna da.

Santa Ormaetxe

Juani Ormaetxe Bilbao (1940-2018)



Lezamako baserri handiengan jaio zen, Goitioltza auzoko Olabarrin. Ama Deriokoa zuen eta aita Zamudiokoa. Umetan auzoko eskolara joatearekin batera aritzen zen baserriko beharretan eta Bilboko plazara jeneroa saltzen. 21 urtegar Bilbora ezkondu zen eta urtez luzez tabernari lanetan aritu izandakoa da, Zamakona tabernan, hain zuzen ere.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Sagarrak

- **Hizlaria(k)**: Bilbao Bolunburu, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zubiri, Itsasne
- **Erref**: LZM-003/007
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:10:08. **Bukatu**: 00:12:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 - Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena**: Gaur egun plazan kanpoko jenero asko saltzen da. Kanpoko frutak oso itxura onekoak dira, ez hemengoak bezalakoak; hala ere, bertokoak goxoagoak dira. Lehen, sagarrak hartzen zirenean, ganbaran gordetzen ziren negurako eta ez usteltzeko belar sikua jartzen zen gainetik. Kalabazak ere gordetzen ziren.

Transkripzioa

-Oin be, oin ia jentia kanpoko frutia gura deurie, ze ez deke bitxorik eta ez deke zerik. Baie hemenegro sagarra ta madarie probau...probauten deuenak ez detse ardurarik [kotxo] euki arren. Daz batzuk oso-oso... dau gizon bat sobre todo bat dau, aste guztietan eroaten dabela biherrera sagarrak. Ta sapatuen etorri jaten zera, badakizu Ester zuri emon notsuzenak moruko sagarrak dekoz honek [barren], kaja bat edo. Baie itxuri txarra dekie, hemengo frutiek itxuri txarra deko. Kanpoko dator ba oso polito ipinde, oso einde.

-Kanpuen kakaztuta datoz.

-Bai, bai, bai, dana. Eta gure Karmelek esaten do: Ama, "traeme los que tienen bicho emoistazuz ama neuri". Horrek. Eta hori esaten dotsiet nik be sarri [asko]: "Estos son ecológicos e" ta aitu eiten dostie esaten dotsetenien. "Pero qué mala pinta tiene" igual, ta "Bueno bai, baie onak dozuez. Eroan!" Ta egie da, bai. Itxuria txarra dekie baia gozoa da.

-Zelan gordetan zan antzine generoa, holan joaten zanian, negurako eukiten zan ez?

-Bai, orduen egoten zan sagarrak bost kantoiak, urtebeteak ta horrek. Kamarotera eroan ta igual martien ta aprilen kamaroteko sagarrak jaten,

tximur-tximur einde egoten zien, oso gozoak.

-Baia zelan eiten zan ez usteltzeko? Ganbaran sartzen zan bedarran barruen?

-Bedar sikue botaten gendun ganbaran ta haren ganean zabalean ipinten genduzen. Ze imini ezkeru gitxiau usteltan die, gitxiau usteltan die.

-Ta zer gehiau mantenitzen zan holan?

-Kalabazak be bai. Kalabazak be asko.

-Oseake [...] urre gorrie jatekoa?

-Bai, urre gorrie bai jatekoa.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Alkatxofa asko saltzen zituzten (LZM-003/004)

Amamarekin azokara joaten zen trenean. Santa Gurutzeko auzoan hartzen zuten tren. Orburuak (Alkatxofak) eta porruak saltzen zituzten. Orburu ederrak ziren eta berriro saltzeko erosten zutenek ilara egiten zuten erosteko, hamaiketarako jenero guztia saltzen zuten. Astean bitan joaten ziren Bilbora eta ehun dozena orburu saltzen zituzten. Orburuen sasoia martxoa-apirila zen.

2. Azokara joateko, astoz trenera (LZM-003/005)

Baserrian behiak, txalak, txerriak, oiloak eta astoa zeuzkaten. Azokara joaten zirenean, tren geltokiraino astoan eramaten zuten jeneroa eta han uzten zuten lotuta itzuli arte. Amama Fikatik Bilbora oinez joaten zen eta bidean gaztainondoetatik perretxikoak biltzen zituen plazan saltzeko.

3. Txerri okela (LZM-003/008)

Txerria hiltzen zutenean, txorizoa eta solomoa koipetan sartzen zen eta pernilari gatza azpitik jartzen zitzaion mantentzeko. Txerria ilbeheran hil behar zen okela ez lehortzeko.

4. Zomorroak barazkietan (LZM-003/010)

Gaur egungo bandejari botika gehiago botatzen zaio. Barazkiekin amaitzen duen zomorro bat dago eta horrekin bukatzeko intsektizidak erabili behar dira. Lehen arazo hori ez zegoen. Uste du arazo hau fabriken kutsaduraren ondorio dela.

5. Erromeria (LZM-003/012)

Lezaman gonaz jantzita eta zapatilekin joaten zen erromerietara. Plazan bozgorailu bat jartzen zen musika entzuteko. Igandero arrastiko seietatik iluntzera arte erromeria egoten zen. Lezamako erromeria Zamudiokoa baino lehenago bukatzen zen. Musika gehienetan gaztelaniaz izaten zen.

6. Santiago eguna Derion (LZM-003/014)

Bere gizona Deriokoa zen, Santiago egunean ezagutu zuen erromerian dantzan. Santiago egunean izekoren etxera joaten ziren bazkaltzen, bazkaldu ostean meza zegoen eta honen ondoren erromeria. Santiagoko jaiak itzelak ziren, meza nagusiaren ostean euskal dantzak egoten ziren. Garbantzuak,

indabak, gisatua eta arroz-esnea zen orduko jatordua. Bazkal ostean abestu egiten zen.

7. Ezkontza (LZM-003/016)

Ezkondu zenean, Donostiara eta Bartzelonara trenez joan zen eta Bartzelonatik Bilbora hegazkinez. Bidaiatik itzuli zirenean 1.000 pezeta zeuzkaten soberan eta libreta bat ireki zuten. Bazkaria Bilbon izan zen, denetarik egon zen bazkaltzeko. Traje beltz batekin ezkondu ziren biak. Bazkaldu ostean, jai handia egin zuten; bere osaba Patxi txistularia zen.

8. Furgoneta barazkiz beteta (LZM-003/018)

Gidatzen ikasten otsailean hasi zen, patatak ereiten hasi baino lehen. Gidabaimena atera zuenean, furgoneta bat erosi zuen eta barazkiz beteta eramaten zuen Mungiara, dena saltzen zen. Elkarrizketa garaian oraindik azokara joaten zen oso gustura.

9. Fielatoa (LZM-003/020)

Bilbo eta Txorierri artean, Santo Domingon, baserriko produktuekin kontrabandoan ez aritzeko, fielatoa zegoen, produktu batzuk debekatuta baitzeuden. Handik pasatzean, baserriarren jeneroa begiratzen zen.

10. Sasimartxo (LZM-003/023)

Inauteriak ez ziren ospatzen, baina bai Sasimartxo. Sasimartxon, kanpoan, txorizoa eta patata-tortilla prestatzen zituzten. Tostadak ere jaten ziren baina etxetik eramandakoak.

11. Etxetik irten behar (LZM-003/026)

Gerra Txorierrira heldu zenean, animaliak hartu eta patronatura ihes egin zuten. Amama, berarekin, guztion atzetik zihoan furgoneta batean. Furgoneta apurtu eta Juana korrika irten zen Santo Domingorantza. Bi egunean aterpe batean gelditu ziren. Bere lehengusinak dio Santo Domingoko bidean, bidetik jarraitzeko gorpuak kendu behar zirela erditik entzunda duela.

12. Plazako anekdota (LZM-003/028)

Plazako anekdota bat kontatzen du.

13. Tabernan eguna eta gaua pasa zutenena (LZM-007/001)

Anekdota bat kontatzen du, tabernan eguna argitu eta eguna bertan eman zuten gizon biri buruzko kontakizuna.

14. Tratantea eta bizilagunaren arteko gertaera xelebrea (LZM-007/003)

Tabernako gertaera bat. Tratantea eta bizilagunaren artean gertatutakoaren kontakizun xelebrea.

15. Apaizari txekorra eraman behar zioteneko pasartea (LZM-007/005)

Tabernan gertatutako pasarte bat, Batiste eta Eugenioren artekoa; apaizari txekorra eraman behar eta ez eramatea pentsatu zutenekoa.

16. Ama arropa garbitzailea Bilbon (LZM-007/007)

Bere amak gobada egiten zuen eta astoz eraman Bilboraino, diru truke. Sagar-erreak ere saltzen zituen.

17. Lehengo gizonak hobeak (LZM-007/009)

Umea jaio eta bigarren egunean elizara sartzea egiten zuten. Lehenagoko gizonak hobeak zirela esaten du. Auzoko gizon baten adibidea jartzen du, pasarte pare bat kontatuz.

18. Alkandora bakarra zeukaten anaien kontakizuna (LZM-007/011)

Lehengo bizimodua gogorragoa zela dio. Bere ama arropa garbitzailea zen eta ondo bizi ziren, baina ez denak. Alkandora bakarra zuten hiru anaiaren pasarte.

19. Bizimodu gogorra (LZM-007/012)

Urtea txerri erdiarekin pasatzen zuten. Argindarrik ez zuten izaten, kandela besterik. Taloa jan eta errotara zakuak lepoan hartuta joaten ziren. Ehuneko hamarra kentzen zien errotariak. "Mendak kendu" esaten dio horri.

20. Lan gogorrak diru gutxiren truke (LZM-007/013)

Mutilzaharrentzat beharlekurik ez omen zen izaten. Orduan, lau pezetaren truke egiten zuten lan basoan egun osoan. Portuan zakuak bizkarrean hartuta aritzen ziren ordu askoan.

21. Bederatzi urterekin argindar posteak jasotzen (LZM-007/014)

Bederatzi urte zituela, argindarra ekarri zuten etxera. Behiekin argindarraren posteak jaso zituen.

22. Eulogio Olaburu gurdizainari gertatutakoa (LZM-007/015)

Eulogio Olaburu izeneko auzoko bati buruzko pasarte kontatzen du, Bilbora egurra eraman eta handik simaurra ekartzen zuenari buruzkoa.

23. Bilbon saldutako hegaztiekin, errenta ordaindu (LZM-007/019)

San Tomas inguruko domekan errenta ordaindu ahal izateko Bilbon hegaztiak saltzen zituzten. Zaila zen errenta ordaintzea.

24. Ezpata dantzariak eta auresku txapelketak (LZM-007/020)

Andramarietan izaten ziren festak. Ezpata dantzariak ziren hiru anai etxean. Aitak mitinetara eramaten zituen. Auresku txapelketa izaten zen eta Txomin `Kakaleku´ izeneko bat aurkeztu eta irabazi egin zuen.

25. Txomin `Kakaleku´ preso hartu zuteneko kontakizuna (LZM-007/021)

Txomin `Kakaleku´ gerra garaian preso hartu zuten. Pasarte barregarria kontatzen du.

26. Larrabetzuko `Patakon´ lapurrarenak (LZM-007/024)

Larrabetzuko `Patakon´ lapurraren kontuak kontatzen ditu.

27. Etxea zuritu, arropa berrien truke (LZM-010/004)

Bederatzi urte bete orduko etxea zuritzeko lana hartu zuen anaiarekin, arrebak arropa berriak jostearen truke.

28. Eskolara, ez joanda gusturago (LZM-010/006)

Eskolara joan ezean pozik egoten zen; lanean gusturago. Maisuak jo egiten zituen. Bere eskola gerran suntsitu zuten. Berriak berak egin zituen.

29. Umetan, pinua landatzeko zuloak egiten (LZM-010/007)

Umea zela, pinua landatzeko zuloak egitera joan zen aitarekin mendira. Diru pixka bat irabazita, pozik ibili zen.

30. Umetan lasterketetan (LZM-010/010)

Mutikoa zela, San Mameseko lasterketa batean parte hartu zuen. Bigarren aldiz parte hartu zutenean, saria lortu zuten. Leku askotan ibili zen lasterka.

31. Galdakaoko lasterketan, aurre xamarrean (LZM-010/011)

Galdakaon lasterketa batean korrika egitera joan zen eta Espainiako txapelduna zen Peñak parte hartu zuen. Lehenengo hamarren artean sartu zen lagunarekin batera.

32. Txartela konfesatzearen (LZM-010/017)

Apaizak gogor egiten zien, dotrina ez bazekiten. Txartela ematen zien konfesatzerakoan, jauna hartu ahal izateko.

33. Zaharrei egindako komeriak (LZM-010/018)

Gaztetan zaharragoei egiten zizkieten komeriak kontatzen ditu.

34. Bizikletaz sarri (LZM-010/023)

Bizikleta beti ezagutu du. Asko ibiltzen zen eta lasterketetan ere bai inoiz.

35. Gerrarako boluntario (LZM-010/027)

Gerra hasi zenean, lehenengo egunetik jarri zen martxan. Donostian zegoela, Maria Kristina hoteletik tiro egiten zieten. Autobusa beteta joan ziren Lezamatik.

36. Bonbetatik ihesi, preso (LZM-010/028)

Lezama ingurutik Miravalles aldera joan ziren. Bonbak jaurti zizkieten eta alde egin zuten. Santanderrera orduko harrapatu zituzten eta Laudiora eraman zituzten. Hango bizipenak kontatzen ditu.

37. Gerrari eta abertzaletasunari buruzko gogoeta (LZM-010/030)

Gerran hildako miliziano eta gazteen inguruan gogoeta egiten du.

38. Abertzaleentzat botoa batzen (LZM-010/033)

Hamasei urte baino gehiagoan botoa batzen ibiltzen zen. Pasarte bat kontatzen du. "Eta tiro eta tiro baltzari, eta tiro eta tiro belarrimotzari, entzungo ez dabenari, belarriek itxi. Lezamako herrien bizkaitarrak nausi!" kantatzen zuten umetan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com